

Gipuzkoako diputatu nagusiaren hitzaldia Ekonomia Forumean

Markel Olano Arrese

Gipuzkoako diputatu nagusia

2011-01-28

SARRERA

Egunon eta mila esker FORUM EUROPARI bere gonbidapenagatik eta mila esker baita ere ekitaldi honetara etorri zareten guztioi.

Agintaldiaren amaierara iristen ari gara. Heldu da garaia azaldu dezagun zer egin dugun, nola egin dugun eta zein emaitza lortu dugun. Heldu da garaia autokritika bat egin dezagun, etorkizunean gauzak hobeto egiteko gai izan gaitezen.

Gogora ekarri nahi nuke gure agintaldia egoera zail batean hasi genuela. Batzar Nagusietan ahultasun politikoa, bi alderdik eratutako gobernu batek beren dituen arazoak, Isaias Carrascoren eta Inaxio Uriaren aurkako atentatuak, eta abar.

Egoera hari aurre egin genion, «kultura politiko berri» batean oinarritutako gobernu ekintzaz. Gobernatzeko eredu berri bat eraiki nahi izan dugu, erakundeen arteko lidergo partekatua, erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetzaz, eta herritarren parte hartzea oinarritzat hartuta.

Uste dut herri erakundeen arteko lidergo partekatua gainditu gabeko eginkizun bat dela oraindik gure herrian. Hala ere, zailtasun guztien gainetik, oinarritzako adostasunetara iritsi gara Donostiako Udalarekin edo Eusko Jaurlaritzarekin, eta bide horretan aurrera egiten jarraitu behar dugu.

GIPUZKOA AURRERA elkarlan publiko-pribatuaren esperientzia paregabe bat izan da. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala, Kutxa, ADEGI, Gipuzkoako Merkataritza Ganbara eta Mondragon taldea batera aritu gara, hausnarketak partekatzen, eta, batez ere, ekintzak partekatzen, proiektu sakonak bultzatzen biozientzietan, higikortasunean, gizarte berrikuntzan, eta abarretan.

Esparru publikoa eta pribatua elkarturik ari gara lanean gure lurraldearen proiektu estrategikoetan, eta elkarrekin ari gara, baita ere, krisi ekonomikoari aurre egiteko programetan eta ekintzetan. Orain dela hilabete bat, GIPUZKOA AURRERA Fundazioa sortzea erabaki dugu, gure arteko adostasuna tresna eraginkorragoa izan dadin, kudeaketaren aldetik.

Kritikak ere izan ditugu. Ikasteko eta hobetzeko balio behar digute, baina xehetasun bat egin nahi nuke. GIPUZKOA AURRERAK ez die zilegitasun demokratikorik kentzen herri erakundeei. Alderantziz: indartu egiten ditu. Indartu egiten duten bezala, esate baterako, herritarren partaidetza prozesuek, gure sistema demokratikoaren zilegitasuna.

Herritarren Partaidetzari buruzko Foru Araua tresna erabilgarri bat da, herritarren partaidetza bideratzeko. Agintaldi honetan asko aurreratu dugu esparru horretan, bai Aldundiaren ikuspegitik begiratuta, bai udalekiko lankidetzaren partekatuen ikuspegitik begiratuta.

«Kultura politiko berri» hori gure politika publiko guztien argindarra da, hitz bakarrean laburtu daitekeena: lankidetzaren. Hau da, taldean lan egitea, partekatzea. Izan ere, partekatzeko zintzotasuna, gaitasuna eta taldean lan egiteko borondatea behar dira.

Zerbait esan nahi nuke Foru Aldundiaren politika publikoen kudeaketari buruz eta baita lurraldearen erronka estrategikoak planteatzeko erabili den testuinguruari buruz ere. Duela lau urte, Gipuzkoan buxadura moduko bat nabaritzen zen, zatiketa politikoak eragindako paralisi moduko bat. Iruditzen zitzaigun mundu politikoak paralisia sortzen zuela, nahiz eta lurralde ekintzaile eta dinamiko bat eduki. Gaur, Gipuzkoan argudio sendoak jarri ditzakegu mahai gainean susmo horri aurre egiteko.

Hitz egin dezakegu, adibidez, errepideen inguruan izandako benetako iraultzari buruz, horren barruan Donostiako 2. ingurabideak, AP-1 autobideak eta Urumeako autobiak, besteak beste, osatzen duten Gipuzkoako biribilgunea baitago.

Portuko pabilioi zaharrak bota eta Masterplana egin zenean, Pasaialdeko ingurune urbanoa berreskuratzeko prozesua abian jarri zela esan dezakegu.

Esan dezakegu jauzi kualitatibo bat eman dela garraio publikoan Lurraldebus eta txartel bakarrarekin. Edo esan dezakegu aldaketa historiko bat egon dela hondakinen tratamenduan: San Markoseko zabortegia itxi dugu, eta gainerako zabortegiak ere itxiko ditugu unea iristen denean; izan ere, apustu sakona egin dugu birziklatzearen alde, eta tratamendu zikloa behar bezala itxiko duen azken belaunaldiko erraustegia eraikitzeke lehen urratsa egin da.

Hitz egin dezakegu krisiaren aurkako planaren bidez enpresei emandako laguntza bizkor eta eraginkorrari buruz, eta ekimen horrek lurraldeko enpresen aldetik izandako harrera bikainari buruz. Eta lurraldearen oreka aipatu dezakegu, eta nola garatu dugun LandaGipuzkoa 32 inbertsio programa garrantzitsua, Gipuzkoan mila biztanle baino gutxiago dituzten udalerriei zuzendutakoa.

Halaber, Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroari buruz hitz egin dezakegu; izan ere, erakundeen artean lortutako akordioaren ondoren, tabako fabrika zaharraren eraikina berritzeko obrak hasiko dira, eta, aldi berean, proiektu kulturala garatzen hasia da gure Artelekun.

Ez dut baztertu nahi giza politika. Aldundia ahalegin handia egiten ari da gizarte zerbitzuen sarea finantzatzeko eta, horrela, Gipuzkoako biztanleek sistema publikora sartzeko duten eskubidea bermatzeko, betiere, berdintasun, unibertsaltasun eta duintasun baldintza guztiak errespetatuta (biztanleek 8,84ko balorazioa eman dute 10en gainean). Legealdi honetan % 41 igo dugu gizarte politikarako aurrekontua.

Nire ustez, esan dudan guztia, nahiz eta modu telegrafikoan esan, Gipuzkoan izaten ari diren aurrerapenen adierazgarri on bat da.

Bereziki azpimarratu nahi dut krisi ekonomikoaren egoera. Izan ere, nazioarteko krisi honek agerian utzi du agortua dagoela Espainiako eredu ekonomikoa.

Ikuspuntu orokor batetik begiratuta, Espainiako ekonomiaren arazorik larriena lehiakortasunik eza da. Munduko Ekonomia Foroak 2010eko irailean plazaratutako lehiakortasunari buruzko azken txosten orokorrean dioenez, Espainia 42. tokian dago, Txile (30), Tunes (32), Estonia (33) eta Thailandiaren atzetik (38), eta azken zortzi urtean 20 postu egin du behera. Galera larri horren arrazoiak honako hauek izan dira neurri handi batean: inbertsio nahikorik eza ikerketan, garapenean eta berrikuntzan, hezkuntza sistemaren gabeziak, eta unibertsitatearen eta enpresaren arteko lankidetzaren falta.

Zerrenda horretako lehenengo postuetan herrialde txikiak daude, Suitza, Suedia eta Singapur, besteak beste, lehiakortasuna sustatzeko baldintza egokiak sortzen nabarmendu direnak guztiak ere. Baldintza horiek esparru guztiak hartzen dituzte, hala nola, ekonomia, gizartea, politika, kultura eta teknologia, eta horiei esker enpresa horiek punta-puntako postuetan iristen dira nazioarteko merkatu nagusietara.

Ekonomi krisia gainditzea eta etorkizunari aurre egiteko prestatzea da gure xede nagusia: lurraldeko enpresen lehiakortasuna indartzea, eta enplegua sortzea eta dagoenari eustea, lan munduan sartzeko arazorik handienak dituzten pertsonei bereziki begiratuta.

2010eko hirugarren hiruhileko biztanleria aktiboaren inkestatik ateratako datuen eta Lan Ministerioak zabaldutako azken datuen arabera, Gipuzkoako langabezia tasa % 8,14 da, hau da, estatuko langabezia tasa baxuena. Gipuzkoan hazi zen gutxien langabezia 2010. urtean (urte arteko hazkundera: % 2,48).

Baina ez dezagun lo hartu. Gipuzkoan 39.449 langabe daude. 39.449 pertsona lanik gabe. Kopuru hori jasangaitza da eta ezin gara ezer egin gabe gelditu.

2011. urtea nahiko baikor hasi dugu: Gipuzkoan % 1,8 egin du gora produkzio industrialaren indizeak. Esportazioak % 13,5 igo dira 2009ko urritik 2010eko urrira, eta enpresen salmentak % 4 hazi dira 2009ko azarotik 2010eko azarora bitartean. →

2010ean jarri genuen martxan Kriari aurkako Plana, eta oso emaitza positiboak izan zituen, izan ere:

- 5.000 pertsona baino gehiagorengana iritsi ginen; laguntza hura gabe gaur lanik gabe egongo ziren pertsonak, alegia.

- Enplegu kualifikatua sortu genuen (181 kontratazio), enpresei balio erantsia gehituz.

-182 enpresa proiektutan parte hartu genuen.

-Hainbat herrilan bizkortu genituen, eta gaur dagoeneko exekutatzeko ari dira, ekonomia bultzatuz, enplegua sortuz eta mantenduz. 2010. urtean % 43 igo zen obra publikoen lizitazioa.

Azken batean, errealista izan den ekintza plan bat osatu genuen; errealitatearen gainean aritu gara lanean eta emaitza errealak izan ditu. Horregatik, Krisiaren aurkako 2011ko Plana aurkeztu dugu oraindik orain.

Gipuzkoako Foru Aldundiak gure enpresen lehiakortasuna bultzatuko duen ingurune bat sustatzeko erabateko konpromisoa hartu du. Horretarako funtsezko hiru eraldaketa bultzatu nahi ditugu.

Lehenengo eraldaketa gizarte osoaren internazionalizazioa da. Zorionez, gure enpresetako asko bide hori urratzen ari dira azken urteetan, beren produktuak esportatuz eta kanpoko merkatuetara zabalduz hazkunde ahalmen handiarekin. Gaur egungo atzeraldiak arriskuan jartzen du gure presentzia merkatu horietan eta internazionalizazioa bizkortzera eta gure enpresa sare osora zabaltzera behartzen gaitu. Horretarako, lortu behar dugu gure gizartea kanpoaldera irekitzea eta babesik handiena ematea gure enpresen internazionalizazioa indartzeko merkatu berrietara joaten diren profesionaleri.

Bigarren eraldaketa da jakintzan oinarritutako etorkizuneko sektore ekonomikoak garatzea, eta gure industriaren lehiakortasuna hobetzeko punta-puntako teknologia sartzea. Gipuzkoa Aurrera aliantza estrategikoaren barruan, Gipuzkoako erakunde publiko eta pribatu nagusienak etorkizuneko enpresa proiektuak bultzatzen ari gara energiaren, mugikortasunaren, domotikaren eta biozientzien arloan. Proiektu horiek arrakasta izan dezaten gure azpiegitura eta zentro teknologikoak indartu behar ditugu. Eta ikerketarekin eta jakintzarekin lotutako talentua erakartzeko eta Gipuzkoan geratzeko ekimenak sendotu behar ditugu.

Eta hirugarren eraldaketa da gero eta urriagoak diren baliabide publikoak kudeatzean eraginkortasun handiagoa lortzea. Kultura politiko berriaren bitartez, Diputazioa erakundeen arteko koordinazioa bultzatzen ari da helburu garbiak lortzeko, besteak beste, ditugun baliabideak hobeto aprobetxatzeko, prozedura administratiboak errazteko, gastu arruntari eusteko, inbertsio produktiboa areagotzeko eta gizarte gastua handitzeko.

Orainaz hitz egin behar dugu eta, batez ere, etorkizunaz hitz egin behar dugu.

Lurraldearen lehiakortasuna, iraunkortasuna eta gizarte kohesioa bultzatzeko politikek, lehenik eta behin, eskatzen dute proiektu propioak, pertsonen, enpresen eta Gipuzkoak dituen erronken neurrira egindakoak, diseinatzea. Ez dago lurralde eta testuinguru ororentzat balio duen politika estandarrik.

Gipuzkoaren etorkizuna 4 hitzetan laburbildu daiteke: lehiakortasuna, elkartasuna, nortasuna, mugikortasuna.

Lehiakortasuna

Etorkizunari begira, Gipuzkoako politika publikoen ardatza lurraldearen lehiakortasuna izan behar du.

Industria eta ekonomia arloan gauzatzen ari garen politikaren ezaugarriak indartu behar ditugula sinetsita, herrialde eta lurralde gisa, lehiakorra, dibertsifikatua eta presentzia zabalekoa izango den enpresa eredu baten alde egin nahi dugu, enpresa jarrera aurreratuak bultzatuz, horien bitartez gure enpresa sarearen ahalmenak bikoiztea, funtsezkoak diren erabaki estrategikoak indartzea eta gero eta lehiakorragoa den testuinguru batean gure enpresak nabarmentzea lortuko baitugu.

Bide batez, gauza bat esan nahi dizuet. Gipuzkoarrek guk ordezkatzeko dugun proiektua berresten badute, lurraldearen lehiakortasuna bultzatzeko baliabideak nabarmen handitzea proposatuko dut, baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren egitura egokitzea ere. Hala, sustapen ekonomikoko departamentu berri bat sortuko genuke, gainerako erakunde, antolakunde eta entitateekin koordinatuta, enpresei laguntzeko eta Gipuzkoako lehiakortasuna sustatzeko hartu dugun konpromisoan aurrera pauso kualitatiboa izan dadin.

Elkartasuna

Gipuzkoako herritar taldearen piramidea nabarmen aldatu da: hiru hamarkadaren buruan, gizarte gazte izateari utzi eta gizarte heldu bilakatu da. Adineko pertsonak gora egin dute; izan ere, 2020an 85 urtetik gorakoek herritar taldearen % 4 egingo dute; 1981ean, berriz, % 0,5 ziren. Aldaketa hauen atzean bi arrazoi daude, biak positiboak: guraso izatea guraso izan nahi denean, eta bizitzaren itxaropen hobea. Alabaina, ondorioak dinamismo ekonomiko eta soziala nolabait galtzea eta pentsioen egungo sistema zurruntzea izan daitezke, eta, horiekin batera, gizarte arretako gastua handitzea gurean, Gipuzkoan, non gizarte oso kohesionatua baita ongizate ekonomikoari eta gizarte arretari dagokionez.

Zentzu horretan, beharrezkoa da Gipuzkoan gizarte-arreta bikaina sendotzea, gipuzkoarren beharretara ongi moldatua. Eta, horretarako, erabiltzaileen eta familien parte hartzea behar da, zerbitzuak ebaluatzeko eta elkarrekin diseinatzeko; eta, lurraldeko organizazio guztietan, kudeaketa eredu aurreratuak jarri behar dira abian.

Nortasuna

Lurralde orekak badu oinarri nagusi bat: gure kultura, gure nortasuna. Egungo gizartean, kultura sorkuntza, komunikazio sistema aurreratuenean bidez, ezinbestekoa da, gizartearen eta errealitatearen eskaerei aurre egiteko ez ezik, gure inguruko kultura ekoizpenekin lehiakorrak izateko.

Gure helburua da Gipuzkoa, Donostia eta Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa den Tabakalera ikus-entzunezko sorkuntzaren eta kultura industriaren garapenaren nazioarteko mugarri bilakatzea, lehiakortasunaren eragile diren aldetik.

Mugikortasuna

Gipuzkoak mugikortasun sistema bakarra behar du, arina, eraginkorra eta iraunkorra, garraio publikoa eta ibilgailu pribatua uztartzen dituen; eta lurralde orekarako eta bizi kalitaterako oinarria izango dena.

Gure helburua da mugikortasun sistema bakarra garatzea, garraio publikoak eta probatuak koordinatuz eta txandakatuz, tarifak eta maiztasunak pertsonen eta merkantzien mugikortasunera moldatuz uneoro. Mugikortasun sistema bakarra da gure xedea, garraio publikoaren eta pribatuaren aukera guztiak hartzen dituen kontuan, tarifa malguen bidez eta gizarte partaidetzaren modu berriak artikulatuz.

ANALISI POLITIKOA

Egoera politikoa arrunt aldatu da joan den urtebete honetan. Euskal gizarteak bakerako itzaropena bizi du berri ere. Gaur, euskal herritar gehienak konbentziturik daude ETAREN amaieran gaudela. Hiru faktorek bultzatu gaituzte horretara:

- Lehenbizi, euskal gizarteak berak aspaldidanik eta era aktiboan deslegitimizatu duela.

- Bigarren, Ezker Abertzaleak orientazio estrategiko berria hartu duela eta bere etorkizuneko proiektua bide politiko hutsetan oinarritzea planteatzen duela.
- Eta, hirugarren, ETAk su-eten iraunkorra, egiaztagarria eta orokorra aldarrikatu duela, Gernikako eta Bruselako adierazpenetan eskatutakoari erantzunez.

Hau ez da amaitu, baina hasiera itxaropentsu bat da, euskal gizarteak nahi eta exigitzen duen amaiera horretara iristeko abiaburu itxaropentsua.

Nik neuk zera pentsatzen dut: zalantzarik gabe, egoera hau aldaketa positibo bat dela orain arte terrorismoak eta estortsioak jota bizi izan dugun egoera dramatikoaren aldean.

Dena dela, egindako urratsak ez dira nahiko. ETAk iragarri beharra dauka indarkeria behin betiko bertan behera uzten duela. Denok dakigu ETAREN amaierara iristea prozesu baten emaitza izango dela. Funtsean Ezker Abertzalearen baita gertatu eta garatu behar den prozesu bat izango da. Prozesu horretan, alde politikoren lidergoak ahalbidetu behar du Ezker Abertzalea demokratizatzea eta indarkeriaren estrategia betiko baztertzea. Bide hau ez da goizetik gauera urratzekoa, baina uste dut ematen ari garen pausuak norabide zuzenean doazela.

Ezker Abertzalea demokratizatzeke logika gero eta hedatuago honek ezinbestez eskatzen du Batasuna legeztatzea.

Batetik, Batasuna inoiz ez zelako jokaleku demokratikotik kanpo utzi behar. Eta, bestetik, Ezker Abertzalea demokratizatzeke nahitaezkoa delako joko demokratikoan parte hartzeke aukera izatea.

Ezin baita exigitu Ezker Abertzalek demokraziaren aldeko hautua egin dezan eta, aldi berean, bide demokratikoan sartzea debekatu.

Bestalde, ETAk planteatuko balu bere amaiera eskakizun politiko jakin batzuetara baldintzatuta, gure herrian ez legoke bakerik, seguru asko ez legoke legalizaziorik eta, zalantzarik gabe, birrindu egingo litzateke Ezker Abertzalea bera eraikitzen ari den aktibo politikoa.

Bakeranzko bide honetan beharrezkoa da, gainera, sistema demokratikoak ahalbidetzen dituen gizatasun-neurri guztiak zabaldu beharko lirateke, indarkeriaren mundu hori bizitza demokratikoan txertatze aldera.

Horretarako, erabat funtsezkoa da gure herrian eratzea bakearen eta adiskidetzearen kultura benetako bat, lehentasunez aintzatetsiz era batera edo bestera terrorismoaren biktima izan diren pertsonak. Bakea eta adiskidetzearen aldeko kultura eraiki ahal izateko, bazter utzi behar dira ikuspegi alderdikoak. Benetan nahi badugu gure demokrazia sendotu, beharrezkoa da guztiok oinarri etiko komun bat partekatzea.

Indarkeriaren amaieraren kontraera izango da adiskidetze eta normalizazio politikoaren abiapunturen mugarrria. Horregatik, Alderdi Sozialistatik eta Alderdi Popularretik egiten duten kontraeran ETaren amaiera polizia lanaren eta aldaketa politikoa emaitza gisa ageri da; tesi horren arabera, aldaketa politiko horrek balio izan omen du abertzaletasun demokratikoa erakundeetatik kanporatzeko, EAJ-PNV bezalako eragile politiko bat -ETA deslegitimizatzeko nahikoa egiten omen ez zuena- desaktibatze eta gure etorkizuna erabakitzeko eskubidearen beharra aldarrikatzen dugun euskaldunon borondate politikoa errotik aldarazteko.

Kontaera honek ETA desagertzea nahi du (euskaldun gehienok partekatzen dugun helburua), baina, halaber, euskal abertzaletasuna desagertzea nahi du baita ere, egungo sistema konstituzionalaren legitimitatea auzitan jartzen duen heinean. Ezker Abertzalea sistema demokratikoan murgiltzeak kontaera honen amaiera ekarriko du.

Gaur begi bistakoa da Batasunaren ilegalizazioak bakarrik egin duela posible Alderdi Sozialistaren eta Alderdi Popularraren operazio politikoa; "norbaiten kontrako" operazio bat izan da hau, ez "norbaiten aldekoa"; euskaldun gehienek mesfidantzaz ikusten duten operazio bat da; herri honen nortasuna aberastu ez baizik "ur-ardotu" nahi duen operazio bat; gure herriaren aniztasuna errealitate integratzea ezinezkoa duen operazio bat.

Izan ere, batek ez du herri honen aniztasuna errespetatzen gauza denean esateko zer eta indarkeriaren amaierak ahalbidetuko duela euskara askatasunarekin uztartzea. Gaur euskara, atzo EITB eta herenegun Kulturen Herritarren Kontratua: egunero-egunero dauzkagu gure kulturarenganako eta gure identitatearenganako errespetu falta larriak.

Batek pentsatzen duenean zer eta herri honen aberastasuna kabitzen dela Alderdi Sozialistaren eta Alderdi Popularraren itunari eusten dion ikuspegi uniformatzaile horretan, orduan ez du, benetan, gure herriaren errealitatea ezagutzen.

Enplegu politikena bezalako gai bat, hain irismen handikoa den transferentzia bat, zuzen-zuzenean Euzko Alderdi Jeltzaleak berak kudeatu eta negoziatu behar izan du. EAJ-k Espainiako Gobernuarekin landutako eta adostu behar izan duen akordioak argi erakusten du euskal gobernuak lekuz kanpo dagoela.

Nahiago duelako inposizioa elkarlana baino; bere ezintasunak ezkutatzeko, indar guztiak hedabideetan xahutzen dituelako. Gobernualdi honetan zehar egin diren inkesta guztiek argi erakusten dute kaleko jendeak zer sentitzen duen euskal gobernu honekiko: Mesfidantza.

Orain dela urtebete, foro honetan bertan aipatu nuen egoera honi aurre egiteko uholde sozial baten beharra genuela. Gaur, uholde hori sortzen ari da. Uholde hori eskatzen ari da bakearen aldeko lana egin dadin, krisi ekonomikotik irteteko gestio eraginkorra egin dadin, euskal gizartearen borondatea errespetatu dadin.

Laster, aro politiko berri batean murgilduko gara. Dena aldatuko da. Bakea eta bizikidetzak demokratikoa erabakigarriak izango dira, aldaketa horretan. Baina ez dira eragile bakarrak izango, egoera berrira bultzatzeko.

Ingurugiro global batean, Euskadik ezaugarri zehatz batzuk garatu behar ditu, lehiakor izaten jarraitu nahi badu; aldakuntza sakonak egin behar ditugu gure nortasunean, kultura zabal bati helduz; politika tradizionalak ez du hainbeste eraginik izango, gizartea aldatzeko prozesuetan; faktore horiek ere eramango dute Euskal Herria egoera berri batera.

Oker dira uste dutenak indarkeria edo gatazka izango direla, iragan hurbiletik bereiziko gaituen gauza bakarra. Iraultza neurtezin bat datorkigu gainera.

Politikari dagokionez, uste dut hiru erantzukizun nagusi izango ditugula:

- Lehenik, joko demokratikorako gune bat sortu behar dugu, plurala, baina ez zatitua; hau da, gutxieneko bateratasun politiko bat behar dugu.
- Bigarrenik, estrategia bat garatu behar dugu herri gisa, euskal erakundeen arkitektura berrantolatzeko, herri garen neurrian dagokigun borondatearen eta eskubidearen arabera.
- Eta, azkenik, gizartea ekarri behar dugu zeregin estrategiko horretara, gune politikoaren eskuetan utzi baita, gehiegitan, eginkizun hori.

Aldakuntza horrekin batera, lan sendo bat egin beharko dugu, gizartearen lehiakortasuna eta iraunkortasuna ziurtatzeko, eta euskal kulturak etengabeko elkarrizketa bat izan dezan munduko kultura garatuenekin.

Bakea lortu, krisi ekonomikoa gainditu, herri gisa garatu. Guztiontzako lantegi bat dugu hor. Konpromiso bat, herri gisa. Gure onenak emango ditugu xede horren alde.

Mila esker.